



Erasoen aurrean, denok bat!

UNITATE DIDAKTIKOA



steilas

www.steilas.eus



Erasoan aurrean, denok bat!



Sarrera

J oan den ikasturtean, azaroaren 25aren harira, unitate didaktiko bat aurkeztu genuen: *Erasorik gabeko espazioak*. Unitate horretan adierazi genuenez, neska asko ez dira seguru sentitzen ikastetxeetan, ez eta beste hainbat toki publikotan ere, leku horietan eraso matxistak gertatu zaizkielako edo ikusi dituztelako, edo badakitelako halako tokietan gertatzen direla. Horregatik aztertu genituen espazio horiek eta espazio horietan garatzen diren jarrerak, eta gainera, alternatibak sortu nahi genituen, hartara pertsona oro seguru senti zedin ikastetxeetako bazter guztietan.

Ikasturte honetako unitatean berriz, jarrera matxistak identifikatu eta bestelako jarrera alternatiboak eta parekideak sustatzen jarraitzen dugu. Aurtengo unitatea horrela deitzen da: *Erasoen aurrean denok bat / Ante la agresión ¡Rebelión!*

Feminismoak erakutsi du oso garrantzitsuak direla hausnarketa, eztabaida, antolaketa, konplizitatea, aliantzak, sarean egindako lana eta erantzun kolektiboak. Tresna horiek premiazkoak dira hezkuntza-eremuan gertatzen diren erasoak agerian jartzeko, batik bat erasotzat hartzen ez diren eta jarrera «normalizat» hartzen diren erasoak azaleratzeko. Era berean, halako tresnak premiazkoak dira alternatibak aurkitzeko, eskola-komunitatea osatzen duten kide guztien laguntzaz, eta hala, ikastetxeetan eta gainerako espazio publiko eta pribatuetan indarkeria matxista deuseztatzeko eta emakumeen ongizate fisiko eta psikikoa bermatzeko.

Unitate didaktiko honetako jardueren bitartez, hauxe azpimarratu nahi dugu: matxismoari aurre egiteko behar-beharrezkoak direla talde-hausnarketa, alternatibek bilaketa kolektiboa eta batasuna. Jarduera askoren helburua da emozioak, bizipenak eta enpatia aktibatzea, izan ere, ez da nahikoa erasoei teoria mailan aurre egitea; horrez gain, aktiboki egin behar diogu kontra halako jarrerei.

Abiapuntua

HELBURU OROKORRA

Eskolan gertatzen diren erasoak identifikatu eta horien konponbidea taldeka aurkitzeko estrategiak ematea.

HELBURU DIDAKTIKOAK

- Askatasuna ahalbidetzen duen bizikidetasunerako jarrera egokiak eta desegokiak identifikatzea.
- Beldur mota desberdinak identifikatzea kontra jotzeko kapaz izateko.
- Ikasleen autoestimua era aktiboan sustatzea, beraien garapen psikosoziala indartuz, erabakiak hartzeko gaitasuna izan dezaten.
- Arazoak konpontzeko taldeko estrategiak garatzea.
- Normaltzat hartzen diren baina emakumeen kontrako erasoak ezkututzen dituzten ohiturak, sinesmen eta praktiken aurrean espirtu kritikoa garatzea, haien ondorioez jabetzeko eta horien kontra borrokatzeko.
- Zein jendarte eredu nahi dugun hausnartzea, hura aztertuz, jendartearen norbanako guztien ongizatea bilatzeko.
- Gaitasun sozialak lantzea jabetze prozesu bat gauzatzeko (bai/ez esatea, argudiatzea, eskatzea, nahia adieraztea..), horretarako behar diren egoerak eskainiz, askatasunez bizitzen ikasteko.
- Gatazken konponbidea modu positiboan lantzea, horretarako behar diren egoerak eskainiz, enpatia garatzeko.



OINARRIZKO GAITASUNAK

- Gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna.
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.
- Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna.

EDUKIAK

- Unitatean agertzen diren jarrera ezberdinen definizioa: beldurra, elkarrizketa, eskuzabaltasuna, errespetua...
- Indarkeria matxistaren kontzientzia.
- Emakume eta nesken egoeraren inguruko sentsibilizazioa.
- Emozioen identifikazioa.
- Eguneroko arazoak eta konponbideak.
- Autoestimua hobetzeko mekanismoak.
- Gaitasun sozialak.
- Elkarlanerako eta lankidetzarako jarrera eta adostasunetara iristeko prozeduren garapena.
- Informazioa bilatzeko, sailkatzeko, aztertze eta adierazteko trebeziaren garapena.



Jarduerak

1

GAIAREN AURKEZPENA ETA MOTIBAZIOA

Hurrengo jarduerak ikasleen adina zein gaiarekiko duten motibazioari egokitu beharko dira. Horretarako baliabide desberdinak erabil daitezke.

Materialak: STEILASek aurkeztu duen kartela, abestiak, folioak, boligrafoak eta margoak.

Denbora: 3 saio.

Taldekatze mota: Banaka, talde txikiak eta talde handia.

GARAPENA

1. SAIOA

(HH, LH, DBH eta Batxilergoa)

- 1 Irakasleak STEILASeko kartela toki ikusgarri batean jarriko du.
- 2 Ikasleak talde txikitan banatuko dira eta hamabost minutuan talde bakoitzari kartelaren esanahia zein den eztabaidatzeko eskatuko zaio.
- 3 Esanahiak komunean jarriko dira eta ondorengo galderen inguruan hitz egingo da adinaren arabera galderak egokituz:
 - Zer irudi ikusten duzue kartelean? Zer esan nahi dute...?
 - Kartelaren leloak zer adierazten du?
 - A25 egun honetan zer aldarrikatzen da?
 - Kartela egun honetarako egokia al da? Zergatik?
 - Egund hauetan erreibindikazioa egiten jarraitu behar al da? Zergatik?
 - Zeri erreparatu diozuen horrelako ondorioak ateratzeko?
 - Pertsona guztiei berdin eragiten al die bortizkeriak? Zergatik?



(BATXILERGOAN)

Irakasleek zentroko txokoren batean erasoen postontzia ezarriko dute. Ikasleei jakinaraziko diete, gelan egindako gogoetez gain beste batzuk era pribatuan adierazteko aukera dutela. Horretaz gain, edozein eraso pairatu edo horren lekuko izan badira, bertan adierazteko aukera ere emango zaie. Postontzia ikasturte osoan zehar mantentzea gomendatzen da gerora sortuko dugun Indarkeriaren Behatoki Bateratuaren tresna gisa.

2. eta 3. SAIOA

Garapena (LH):


- 1 Neskek, neska izateagatik baztertu edo erasotuta sentitu diren egoera bat idatziko dute.
- 2 Mutilek egoera berdinen protagonista edo testigu izandakoa.
- 3 Mutil eta neskez osatutako talde txikiak egingo ditugu.
- 4 Mikro matxismo egoera bateko komikia edo bideoa egin beharko dute. Power pointa bidez, bideoa edo marraztutako komikia. Eskolan dauzakgun baliabideen arabera.
- 5 Gelan aurkezpena egingo dugu.
- 6 Komenigarria da eskolak sare sozialak edo bloga badu ikasleen lan hauek erakustea oihartzun handiagoa izateko.

Garapena (HH):

- 1 Jarrera ez sexisten eta jarrera sexisten zerrenda irakurriko diegu desordenatuta (adibide batzuk Rool playingean jarritakoak izan daitezke).
- 2 HH5ekoek Bakoitzaren marrazkia egin beharko dute edo interneten irudiak bilatu.
- 3 HH2, HH3 eta HH4koek hauek egokiak eta desegokiak taulan kokatuko dituzte.
- 4 Interesgarria da talde heterogenoak, hau da, adin nahasketa egitea.

Garapena (DBH eta BATXILERGOA):

- 1 Irakasleak abesti bat jarriko du (abestia indarkeria matxista salatzen duen doinua izan dadila gomendatzen dugu eta ahal dela ikasleen gustukoa) eta kopuru ezberdinetako taldeak egiteko eskatuko du musika gelditutakoan: Bikoteka! Hirunaka! (...) Gehienez 5’.
- 2 Irakasleak aukeratutako taldeen osakeraz galdetuko die. Mistoak al dira? Neskak bakarrik al daude? Zergatik? Aurreiritziek, gizarteak, segurtasunak, beldurrak, babes sentipena eragina al dute gure harremantzeko moduan? Gehienez 8’.
- 3 Behin gehiago joko du musikak baina oraingoan, begiak itxita mugituko dira ikasleak espazioan eta azkeneko taldeak osatuko dituzte. Gehienez 2’.
- 4 Begi itxiekin («aurreiritzi gabe») taldeen osakerari erreparatzeko eskatuko die irakasleak. Eta berritasun horrek sortarazten dion sentimendua paperean hitz batez idatziko dute.
- 5 Talde berri horietan daudela role-playing bat sortu beharko dute. Gehienez 20’.
- 6 Role-playinga sortzeko hartuko dute kokapen bat eta indarkeria mota bat (azpiko txartelak nahastu ditzake irakasleak). Horiek kontuan hartuta: erasotua, erasotzailea eta lekuko rola eraikiko dituzte. Lekukoetako batek egoeraren ohiko tratamendua emango dio (patriarkala) eta besteak «betaurreko moreak» jantzita dituela, ustezko jarrera egokia hartuko du.



- 7 Role-playingak antzeztuko dituzte eta ikusleei aurkeztutako «jarrera morea» ebaluatzeko eskatuko diegu, haien ekarpenak egiteko aukera emango zaiela (25’).



2

GATAZKEN /ARAZO EBAZPENA (HH eta LH)

Materialak: aurretik sortutako materiala, roll playing a antzezteko materiala

Denbora: 3 saio.

Taldekatze mota: Banaka, talde txikiak eta talde handia.

1. SAIOA «Dekalogo» (LH)

GARAPENA

Komikiak berreskuratuko ditugu.

- 1 Binaka egoera ezberdinak aztertuko dituzte
 - Zer egin egoera honen aurrean?
 - Zer gertatzen da bertan?
 - Nolakoa da jarrera?
 - Zer sentitzen dute bertan?
- 2 Erantzun posibleak edo irtenbideak proposatuko dituzte.
 - Zer egin dezake erasotutako egoera horretatik irteteko? Zer egin dezake egoerari aurre egiteko?
 - Zer egin dezakete inguruan daudenak? Nola erantzungo du erasotzaileak horren aurrean?
- 3 Egoera ez sexisten zerrenda ere osatuko dugu. Neskek egoera batean aukera berdintasunean tratatu dutela sentitzen duten egoeren zerrendak.
 - Noiz sentitzen du neska batek aukera berdintasunean dagoela?Hemendik onartzen ez ditugun jarrereren eta onartzen ditugunen sailkapena egingo dugu.
- 4 «Dekalogo» hau eskolako eremu guztietan (jantokia, pasabidea, komunak, patioa, ikasgela...) leku ikusgarrietan egongo da. Sare sozial, blog edo web orria izatekotan eskegiko dugu.

2. SAIOA

Gatazken/ arazo ebazpena (LH)

Berdinen arteko ebazpenari emango diegu lehentasuna. Helduaren esku hartzerik gabe zelan bideratu dezaketen gatazka egoera ezberdinak. Adostokiak antola daitezke edo bitartekari edo ikasle laguntzailearen eraketa egin. Azken horiek, Bitartekaritzaren jarraibideak ezagutuko dituzte.

https://www.youtube.com/results?search_query=bully+dance
<https://www.youtube.com/watch?v=ZgaidCmzfHk>

Role playinga edo egoera antzeztuak egingo ditugu arazo ezberdinak azalduz:

Irune komunean dago. Atea ez da beheraino heltzen, hutsune bat geratzen da. Bertatik mutiko batek burua sartu eta begiratu egin du barrezka.

«Irune kakati!» esan du eta beste ume askoren barreak entzun dira.

Estik gona berria jantzi du. Poz pozik doa nabaria da oso gustukoa duela. Mutil talde baten ondotik pasatzerakoan batek gona altxatu dio eta besteek barre egin dute.

Klasean sartu eta Irakasle batek «Egun on printzesa! Ze polita zauden gaur!» Neskei esan eta Aupa baliente! Egun on txapeldun/ txabalote! Esaten die.

Gelaz aldatu beharra dugu datorren ikasturtean goiko solairuan egotea dagokigulako. Traslado hau egiteko ikaskide guztiok lanari ekin diogu. Kutxetan sartu dugu material guztia. Irakasleak esan du Jon, Aitor, Eneko, Ander Kutxak hartu eta gora igo. Maite, Ane, Matxalen hautsa kendu, erratza pasatu eta fregona pasa ezazue.

Jolastorduko material banaketan jantokiko begiraleek mutilei baloia eta neskei soka edo goma banatzen die galdetu gabe.

Maitanek dinosauro handi bat ekarri du. Gorka hurbildu zaio eta «hori mutilen kontuak dira». Beste ume talde batek mezu bera errepikatu dute.

Ibonek haur txiki baten panpin bat ekarri du eta Nagorek esan dio «hori nesken kontuak dira». Beste ume talde batek mezu bera errepikatu dute.

Horien bi amaiera posible proposatuko dituzte.

Bien artean talde handian eztabaidatuko dute zein duten gustukoen eta zergatik.

Hau Lehen hezkuntzako taldekoek egin eta Haur hezkuntzako aurrean antzerkia egin dezakete eta ondoren amaiera aproposena erabaki denen artean.

3. SAIOA
Egoeren azterketa (HH)

Lehen hezkuntzako komikietan pertsonai bakoitzak zer sentitu duen azalduko dute. Egoera honetan zer sentitu du neskak/ mutilak? (emozioak adierazteko emoziotegi bat izan dezakete edo emotikonoak erabili errazago azaltzeko).

Komikiei amaiera asmatu. Hitzez amaiera ezberdinak asmatuko dituzte eta korroan azaldu.

3 PROTOKOLOAREN ERAKETA

Materialak: paperak, kartulinak, boligrafoak... eta Emakumeen mundo martxako protokoloa.

Denbora: 2 edo 3 saio.

Taldekatze mota: talde txiki eta handian.

GARAPENA (LH)

- Eraso matxistikarik ez protokoloa. Berdintasun batzordea eratzea.
- Eskolako kide ezberdinen partaideez osatutako batzordea proposatzen dugu: guraso, irakasle, hezitzaile ez irakasle guraso eta familiak.
- Eraso edo eta erailketa matxistikarik dagoenean eskolan herrialdeko protokoloa aktibatzen lotura egingo du. Emakume mundo martxak aktibatzen duen protokoloa hain zuzen ere. Bertan egun horretan egongo diren protesten kartela egongo da. Eskolako batzorde honek horren berria zabalduko du.
- STEILASeko protokoloa eskolara helduko da ere. Bertan eskolan gertaera honen salaketa egiteko proposamena azaltzen da.

Ariketa honen bidez eskolan holako gertaeren aurrean zer egingo den adostea da helburua.

Hau da, eskolako protokoloa adostea.

*Eraso sexisten aurrean denok bat
Erasorik ez erantzunik gabe
Eraso sexistarik ez*

Lemak hartuko ditugu eta kartulinekin kartelak egin, pankarta bat prestatu edo audioa grabatu daiteke gertaeraren aurrean elkarretaratzea prest edukitzeko eta eskolan sartu aurretik egin ahal izateko. Horren simulazioa ere egingo dugu, gertatzen denean argi izateko zelan egingo dugun.

Lan horietan ikasleez gain batzordeko beste kideak ere parte hartzera gonbidatuko ditugu.



Batzorde horren eraketa eskolan berdintasun plana egiteko aprobetxatu daiteke eta bertan formakuntza, material ez sexisten proposamena, diagnosiak, M8ko antolakuntza...e.a egin dezake. Urteko plangintza proposatu eta ikastetxearen urteko plangintzan txertatu.

GARAPENA (DBH eta BATXILERGOA)

- 1 Ikastetxean identifikatzen dituzten indarkeria matxistaren adibideak emateko eskatuko die irakasleak ikasleei eta horiek gertatutakoan zer egin behar duten badakiten. 5 minutu inguru.
- 2 Aurretiaz aipatutako erasoei erantzun eraginkorra eman zaien hausnartzeko galdetuko die irakasleak ikasleei. 5 minutu inguru.
- 3 Konponbideez gain, prebentziorako neurriak badauden galdetuko die irakasleak. 5 minutu inguru.
- 4 Irakasleak taldeak libre egiteko aukera emango die ikasleei eta aurreiritzietatik askatzeko eskatuko die. 5 minutu
- 5 Ikasgelan ikastetxeko Indarkeria Matxistaren Behatokia sortzeko enkargua egin zaiela adieraziko die irakasleak. Horretarako talde bakoitzak Indarkeria prozesu batean egon daitezkeen sailtako batez arduratuko da (Nahi bezala molda daiteke: Prebentzioa, Identifikazioa, Erasotuarekiko elkartasuna, Neurri zuzentzaileak edo errepikapena ekiditekoak)
- 6 Talde bakoitzetik atera beharreko proiektuak (60 '):
 - a) Sailaren egitura: beharrezko pertsonen eta baliabide materialen eskema
 - b) Testua: praktika onak, arauak, protokoloa, jarraibideak, behaketarako gomendioak, inprimakiak...
 - c) Artefaktua: taldearen jarduna komunikatzeko euskarri artistikoa: abestia, kartela, performancea, bertsoa, insta-story, film-laburra, ipuina, poesia, horma-irudia, graffitia.
- 7 Talde bakoitzak haien prozesua azalduko du (30')
- 8 Guztien artean Indarkeria Matxistaren Behatokiaren txostena prestatuko dute tresna kooperatibo bat baliatuta (15').
 - a) Unitatea egin duen gela bakarra bada webgunean eskegiko dute eta abian jartzeko deialdia egingo dute.

- b) Unitatea gela batek baino gehiagok egin badu, Indarkeria Matxistaren Behatoki Bateratua izeneko eztabaida espazioa sortuko da eskolan, Behatokiaren ezaugarriak adosteko eta hori abian jartzeko.

0-3 ADIN TARTEKO HEZITZAILEEN HAUSNARKETA

Adin tarte honetan batez ere helduen esku-hartzeak dauka garrantzia haurren adina kontuan hartuta, ondorioz hezitzaileek hausnarketa bat egin dezakete ondoko gaietan arreta jarriz:

- Zelako adjetiboak erabiltzen dituzte helduek, neska edo mutikoei zuzentzen zaizkienean.
- Haurrek jolas librean daudenean ze nolako jostailuak hartzen dituzten jolasteko eta ze nolako mezuak jasotzen dituzten helduen aldetik.
- Ze koloretako arroparekin etortzen dira haurrak eskolara.
- Hurrei entzuten dizkiegun esaldiak idatzi gero aztertzeko.
- Gurasoei entzuten dizkiegun mezuak idatzi gero aztertzeko: (aitek alabei, aitek semeei, amek alabei, amek semeei...)
- Ze nolako materiala eskaintzen diegu haurrak jolastu dezaten?
- Bi haurren arteko gatazka bideratzen laguntzen dugunean nola sentitzen gara erasotua neska denean?
- Ondoren atera dituzten ondorioak hezitzaileen artean eta gurasoekin partekatu dira eta beraien eguneroko jarreretan egin beharreko aldaketak zerrendatuko dituzte.



Ebaluaketa

Kartelarekin egingo den lehenengo jarduera ikasleek indarkeriaz dituzten ezagupenak edota sentsibilitatea ebaluatzeko erabiliko da. Horrek landu beharreko alderdiak zehazten lagunduko du.

Unitatea lantzen den bitartean, ikasleen parte hartzea eztabaidetan, informazioaren bilaketan eta materialen elaborazioan behaketa sistematiko baten bitartez ebaluatuko da.

Unitatea bukatzean, berriz, ikasleen banakako eta taldeko lana baloratuko da ezarritako irizpideen arabera.

Bestalde, jarduera bakoitzaren bukaeran jarduera beraren ebaluazioa egingo da, zerk funtzionatu duen, zerk ez, nola antolatu den gela, denbora, ikasleen motibazioa, taldekatzea... Hau guztia unitatearen prozesua eta garapena egokitzeko erabiliko da.

EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

- Ea kontzientea den harremanetan indarkeria dagoela.
- Ea eguneroko egoerak behatzen eta aztertzen dituen genero osagaia kontuan hartuz.
- Ea ohartzen den harremanetan dauden estereotipoez.
- Ea harremanetan izan behar dituzten ezaugarriek bere lehentasunak adierazten dituzten.
- Ea kontzientea den harremanetan indarkeriak ekartzen dituen arriskuez.
- Ea ezagutzen duen ondorengo hitzen esanahia: beldurra, negoziazioa, jelskortasuna, balorazioa, errespetu, sostengua, elkarrizketa, mespretxua, berekoikeria, inposaketa, lotsa, eskuzabaltasuna, segurtasuna eta gai den jakiteko zeintzuk diren egokiagoak bizikidetasunerako.
- Ea ezagutzen duen askatasuna eta ausardia hitzen esanahia eta bere balio baikorra edota ezkorra.

EBALUATZEKO TEKNIKA


- Behaketa.

EBALUATZEKO TRESNAK

- Irakaslearen eguneroko jarraipena.
- Ikasle bakoitzaren istorioa. Bertan bilduko dira beraien lanaren balorazioa, lan esanguratsuen bilduma eta unitatea garatzean egindako ahozko ekarpenak.
- Egindako lanak.

IKASLEEN EBALUAZIOA

- Zer den gehien eta gutxien gustatu zaiena.
- Zer den ikasi dutena edota zertaz jabetu diren.
- Zerk harritu dituen gehien.
- Zer aldatuko lukete prozesuan.





BALIABIDEAK

<http://beldurbarik.org/eu/>

ESPAZIOAREN DISEINURAKO IDEIAK

<http://elkartoki.com/>

<http://laaventuradeaprender.educalab.es/documents/10184/51639/como-intervenir-un-patio-escolar>

IPUINAK

<https://issuu.com/irenegonza/docs/beldurra>

Beldurtia naiz eta zer?, Arantxa Iturbe.

Roke izeneko komuna, Antton Dueso.

Jonas eta hozkailu beldurtia, J.K. Igerabide.

Piztiak bizi diren lekuan, M. Senda.

BIDEOAK/ABESTIAK

Mayonnice beldur barik

<https://youtu.be/XojGkrGJDEE>

Boy Chearleader

<https://youtu.be/8M6dZTh3rnl>

Stop matxismoari

<https://youtu.be/H8HpFNuye-l>

Konplize

<https://youtu.be/BsGbtw9bg-A>

Emakumeok zutik beldur barik 2017

<https://youtu.be/jAteK1DkhC4>

Matxote kontuz ibili

<https://youtu.be/9sFlivP8Q8U>

Eraso sexistarik ez!

<https://youtu.be/rJs9JlrVObY>

Zer izan

<https://youtu.be/xUoCCBjPjss>



Erasoen
aurrean,
denok bat!



www.steilas.eu